

AEK EGUNARI NERE LOREAK

I

Mila urte ta bederatzirehun
larogei ta hamabian
ez dakit zenbat mila euskaldun
bildu zan gure herrian
nahiz eta jakin ama euskera
daukagula hilzorian
oraindik ere AEK-ri esker
salbatu leike agian.

II

AEK eguna genduela eta
Lezon egundoko festa
berdin gabeko euskal giroa
gure herrian zuten presta
euskara maite degun hauentzat
jai ederragorik ezta
piska batean ezta ahaztuko
urrian hogeitabosta.

III

Goizean goizik jendea heldu zen
«Lezo» non dago galdezka
berihalaxe jarri zitzaigun
herri guztia gainezka
pozaren pozez uxatu gendun
gure bihotzeko kezka
tristerik geunden euskaltzaleak
jarririk irriparezka.

IV

Egun horretan euskara gendun
herrian jaun eta jabe
bera entzuten zan leku danetan
bera zan gure errege
zahar eta gazte, haundi ta txiki
pozik gelditu gerade
egun guztia pasa bai gendun
erderarik entzun gabe.

V

Esan bezela egun horretan
gozatu ginaden bapo
eta arratsa gainean gendun
konturatu ordurako
euskera garbi ta jatorrean
jolastu ginadelako
ama euskerak etzun isuri
inoiz hainbat negar malko.

VI

Euskal kirolak bertso ta ipui
trikitixak eta dantza
Lezok bazuan garai bateko
Euskal Herriaren antza
bainan noiz arte iraungo duan
hori da nere zalantza
egun batekin nahikoa danik
inork ez dezala pentsa.

VII

Giro eder hori ikusi arren
ezin geldi gera trankil
ondo dakigu gure euskeraren
heriotza dala hurbil
eta gainera garbi ikusten da
askok nahi luketela hil
horrelakorik gerta ez dadin
eutsi neskatx eta mutil

VIII

Ez dezagula hoztutzen utzi
holako giro epela
aurrera ere jarrai dezagun
egun horretan bezela
denbora joan ta damututzia
gertatu leike bestela
AEK-k erein duen haziak
frutua eman dezala.

LEGORBURU'TAR MARTZELINO
«ARGIÑANE»